

Eskola inklusiboa: irakaskuntza jarduera, aniztasuna eta desberdintasuna

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Generikoa
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Saioa Esnaola Martin

2. Irakasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai hau, modulu generikoan (MG) kokatzen da eta modulu honetako beste ikasgaiekin batera, formazio psikopedagogikoa eta didaktikoa eskaintzen du.

Ikasgai honetan inklusioa eta aniztasunaren esparrua landuko dugu, eskolako testuinguruan murgildurik. Horretarako, kontzeptua zer den eta bere gaur egunera arteko bilakaeraz arituko gara, eskolan inklusioaren lanketa aztertu, bere oztopo eta erronkak identifikatu eta hauei aurre egiteko mekanismo zein materiala ikasiko dugu.

3. Konpetentziak

- Familiak eskola komunitatean duen inplikazioa aztertzea eta aitortzea, baita hauekin esku hartzeko estrategiak diseinatzea.
- Inklusio egoeran dauden ikasleen hautemate goiztiarra eta hauei erantzuteko estrategia zein baliabideak ezagutzea.
- Ikasgelan eta ikastetxeetan dauden desberdintasun-egoerak identifikatzea, aniztasuna errespetatuz.
- Hezkuntza-aukeren berdintasuna eta desberdintasunekiko errespetua bultzatzen duten esku-hartze estrategiak diseinatzea eta kudeatzea.
- Metodologia berriek eskola inklusiboan duten garrantziaz ohartzea.
- Ikasleen familiekin harreman eraikitzailea izateko esku-hartze estrategiak garatzea, behar duten egoerei elkarrekin heltzeko.

4. Ikas-emaizak

- IE1: Inklusio, aniztasun eta bazterketa printzipio teorikoak ezagutzea, hezkuntza testuinguruaren planteamendu kontzeptual eta ideologikoak kritikoki aztertuz eta dituen oztopoak hausnartuz.
- IE2: Hezkuntza-sistemako maila guztietan jarduten duten zerbitzuen ezaugarriak, antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea eta aztertzea, hezkuntza inklusiboaren esparruan ikaste-irakaste prozesuaren gaitasunen garapena sustatuz.
- IE3: Hezkuntza testuinguruan esku-hartze ezberdinak identifikatzea, ikastetxeetako hezkuntza inklusiboa eta lotutako sistemak hobetzerantz bideratutako esku-hartze planen diseinu aztertuz.
- IE4: Metodologia berritzaileak ezagutzea ikasleei hezkuntza inklusibo bat eskainiz eta hauek eskola inklusibo batean duten garrantziaz ohartuz.
- IE5: DILAN. Ikasitakoa aplikatzea era integratuan eta egoera konplexu batean eta taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.

5. Edukiak

1. Eskola inklusiboa eta printzipioak.
2. Guztiontzako espazio bat eraikitzen.
3. Bazterketa eta inklusio prozesuak.
4. Pertsona guztien aukera-berdintasuna eta hezkuntzarako eskubidea.
5. Eskola inklusiborako gaitasun beharrekoko oztopoak.
6. Eskolak, gelak eta hezkuntza praktika inklusiboak.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta orduetgia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- Escudero, J.M (2012). La educación inclusiva, una cuestión de derecho. Revista de la Facultad de Educación, Vol. 30, Num. 2. Pag. 109-128.
- Eusko Jaurlaritza. Eskola inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa (2021-2016).
- Eusko Jaurlaritza. Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana (2019-2022).
- Eusko Jaurlaritza. Ikastetxeko Urteko Plana eta Urteko Memoria egiteko gida.
- Eusko Jaurlaritza (2018-2019). Ikastetxearen Urteko Plan adibidea, Itsasoko Ama HLHI.
- Heziberri 2020 Marko Pedagogikoa.
- HikHasi (2019). Inklusioa, 237.
- Intermón Oxfam. (2013). Pistas para cambiar la escuela.
- Mendia, R. (1999). GRADACIÓN DE LAS MEDIDAS DE TRATAMIENTO DE LA DIVERSIDAD
- Nafarroako Gobernua. Hezigarri Programa.
- Rada, T., y Hoyos, C. (2011). La educación inclusiva hoy. Reconocer al otro y crear comunidad a través del diálogo y participación”.
- Telefonica fundación. 20 claves educativas para el 2020.
- 118/1998 Dekretua ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena (EHAA, 1998-07-13)
- Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, beharrian bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko (EHAA, 1998-08-31)
- Erabakia, 1998ko uztailaren 24koa, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena (EHAA, 1998-08-31)
- 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.